

idazkaritza-kontuhartzailetza

2024UDIR0004
Ezkurtxo Eguna
HITZARMENA

2024UDIR0004
Ezkurtxo
HITZARMEN PROPOSAMENA

ESKORIATZAKO UDALA ETA ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDURIK

ALDE BATETIK, Edorta Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, eta horretarako ahalmenarekin.

ETA BESTETIK, Laurane Zubia Balantzategi, Arizmendi koop. elkartearen administrari nagusia, Arimendi Koop. elkartearen izenean eta ordezkaritzan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, beraz, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Arizmendi ikastolako Jose Arana guneak orain dela 27 urte hasi zen Ezkurtxo jarduera antolatzen, eta guztira 23 urteetan antolatu da.

Lehenengo zortzi urteetan herrigunea eta zazpi elizateetan antolatu zen. Bigarren bueltan, herrigunean, zazpi elizateetan eta Gatzagan. Orain dela zortzi urte, hirugarren buelta hasi zen, eta horri amaiera emateko aurrean Zarimutz elizatean antolatuko da.

Ezkurtxo 2-10 urte bitarteko Eskoriatzako haur guztiei dago zuzendua eta urriko hirugarren larunbatean egiten da, hain zuzen ere, urriaren 19an.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundearen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Eskoriatzako Udaleko 2024ko aurrekontuetan Arizmendi Koop. elkartearentzako 1.000 euroko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da.

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horren ildo estrategikoak jasotzen dira, lehenengo izanik "Kultur dinamizazioa" izenekoa.

Lerro horren H ekintza Arizmendi Koop. elkartearentzako dirulaguntza izenduna da, eta bere helburua da elkarte horri diruz laguntzea Ezkurtxo ipuin kontari egitasmoa finantzatzen.

Kodea	W24/0047	Udala	Eskoriatza	
CUDO	000.0034.AAAAEQV1.7.oz8R			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAEQV17.oz8R			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu				



Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dutela

BALDINTZAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen helburua 2024ko ekitaldirako udal aurrekontuan Arizmendi Koop. elkartearen alde dagoen diru laguntza izenduna antolatzea da. Diru laguntza hori EZKURTZO EGUNA egitasmoa sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko da.

BIGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du gehienez ere 1.000 euroko diru laguntza emateko 0400.471.334.40.01 aurrekontu aplikazioaren kargura Ezkurtxo Eguna sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Arizmendi koop. elkarateak ez du ordainduko "Ezkurtxo Eguna" antolatzeko behar dituen udal material eta azpiegiturak erabiltzeagatik udal ordenantzetan ezarritako fidantza.

HIRUGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat etorri eta zazpigarren baldintzan zehaztutako justifikazio epea amaitu baino lehen egiten direnak. Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu tipologia zehazteko ondorengo mugak ezartzen dira:

- Administrazio eta antolaketa barne kostuek ez dute diru laguntzarik izango.
- Ez dira onartuko bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.
- Ez dira onartuko gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko baliodun faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte; 7. baldintzan jasotako salbuespena izan ezik.

LAUGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK

Emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuak emandako diru laguntzekin. Hala ere, inolaz ere ez da gain-finantzaziorik onartu. Horrelakorik gertatuz gero, emandako diru laguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

BOSGARRENA: ARIZMENDI KOOP. ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

- Diru laguntza emateko arrazoia den jarduera egitea.
- Baldintzak bete direla eta jarduera egin dela justifikatzea.
- Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak eman dezakeen laguntzarako.
- Diru laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.



- Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta jardun horiek egiterakoan eskatzen zaien informazio guztia ematea.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu baditu, Udalari jakinaraztea. Laguntza horien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena, eta edozelan ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean.

HIZKUNTZA ARLOKO BETEBEHARRAK

- Arizmendi koop. elkarteak hizkuntza normalkuntzarako Udalak ezarritakoa betetzeko konpromisoa hartzen du, eta beraz, beren jardueraren ondorioz ateratzen dituen dokumentu edo idazki guztietan (kartelak, oharak, iragarkiak, programak, liburuxkak...), eta baita ekintza publiko edo jardueretan ere, lehentasuna eman beharko diote euskarari.
- Egitasmoarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOKO BETEBEHARRAK

- Arizmendi koop. elkarteek konpromisoa hartzen du dirulaguntzaren xede den jarduera berdintasun-printzipioa errespetatuz egiteko eta emakumeen presentzia bultzatzeko, bai jarduera antolatzerakoan, bai egiterakoan.
- Arizmendi koop. elkarteak parte-hartzaileei buruzko informazioa bilduko du, sexuaren arabera bereizita.
- Arizmendi koop. elkarteak hizkera ez-sexista erabili beharko du diruz lagundutako jarduera gauzatzeko sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian, eta saihestu egin beharko ditu emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta genero-rol eta -identitate aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu beharko du.

BESTE BATZUK

- Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- Jarduerak sorrarazitako dokumentazio eta inprimatutako propaganda guztietan Udalak diruz lagundutako ekintza dela adierazi beharko du Arizmendi koop. elkarteak; horretarako, alde aurretik Kultura batzordean jardueraren iragarki-kartelaren eredu bat aurkeztu beharko du.
- Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiokeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere. Arizmendi koop. elkarteak joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitekeen ondare erreklamazioari aurre egiteko



erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

SEIGARRENA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTEKO EPEAK

Diru laguntza modu honetara ordainduko da:

- % 60a hitzarmen hau sinatu ondoren.
- Gainerako % 40a, organo eskudunak diru laguntzaren kitapena onartutakoan ordainduko da, hau da, diruz lagundutako jarduerak erabat eta zuzen justifikatutakoan 7. baldintzan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

ZAZPIGARRENA.- DIRU LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Hitzarmenaren helburu den egitasmoa urte honen **azaroaren 30a baino lehen**, Arizmendi koop. elkarteak ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu Udal Erregistro Orokorrean diru laguntza justifikatzeko:

- Eskaera orria.
- Jarduera egin zela eta helburuen betetze maila egiaztatzeko txostena.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).
- Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeko. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeko, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Idazkariak egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe.
- Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.
- Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

a) Fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.

- Elkarrekin ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da. Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

- Gastuak justifikatzerakoan aurkeztutako dokumentuetan izandako faltsukeriagatik, zehaztasun ezagatik edo akatsengatik egon daitezkeen gorabeherak zigortu egingo dira diru laguntza kitatzerakoan.



- Salbuespen gisa, lege ezarritako baldintzak (BEZ, autonomoetan alta, JEZ eta abar) betetzen dituzten fakturak egiteko moduan ez dauden pertsonak emandako zerbitzuetan edo egindako lanetan, ordainketa jasotzen duenaren jasotze-agiria onartuko da fakturaren ordezkotzat, betiere, gutxienez ondoren esango diren datuak baldin baditu, kobratutako kopurua ez baldin bada 125 € pertsonako baino handiagoa eta fakturatzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten gastu ohar edo dokumentu guztien batuketara ez bada jardueraren gastu guztiaren % 25a baino handiagoa.

- a) Ordainketa data, egitasmoa antolatzen den datarekin bat etorri beharko dena.
- b) Ordaindutako zenbatekoa.
- c) Ordainketa jasotzen duenaren (izena, 2 abizen eta NAN) eta ordainketa agintzen duenaren identifikazioa.
- d) Zein kontzeptutan agintzen den ordainketa.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzioaldiaren barruan egon beharko da. Exekuzioaldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta, orokorrean, etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Kultura teknikaria eta kultura zinegotzia edo berak izendatutako pertsona.
- Arizmendi koop. elkartearen aldetik: Elkarrekin izendatutako pertsona.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA SUNTSITZEA

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailan jakinarazi eta gero.

HAMARGARRENA.- IZAERA

Hitzarmen honen aplikaziotik, interpretaziotik, aldaketatik, ondorioetatik eta ebazpenetik auziak edo eztabaidak sortuko balira, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenaren arabera ebaztuko dira.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ESKORIATZAKO UDALA

ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA